



BATZAR ERABAKIAREN JAKINARAZPENA

**Ana Alduntzin Navarro, Larraungo Udaleko idazkaria,
NERONEK ZIURTATUA:**

Larraungo Udalak 2024ko maiatzaren 28an ospatutako Batzarrean, besteak beste, honako erabakia hartu zuela:

6.- UDALETXEKO ZOLADURA ETA IRISGARritasun proiektuko LANAK ESLEITZEA

“Erabakia:

Ikusirik Larraungo Udaletxeko Zoladura eta Irisgarritasun proiektuko lanak kontratatzeko prozedura eta espedientea, hala nola, Kontratazio Mahaiaren esleipen proposamena, 2024ko maiatzaren 10ekoa, LAKITA S.A. enpresaren aldekoa.

Kontuan izanik LAKITA S.A. enpresak baldintza pleguak 14. oinarrian dioen dokumentazioa aurkeztu duela,

Aintzat hartuta 2/2018 Foru Legeko 100. artikulua, Kontratu Publikoei buruzkoa, eta harekin bat datozen gainerako arauak,

Lehenengoa.- LAKITA S.A. enpresari esleitzea Udaletxeko Zoladura eta Irisgarritasun proiektuko lanak (*“PAVIMENTACIÓN Y ACCESIBILIDAD AL AYUNTAMIENTO DE LARRAUN”* izeneko proiektuko lanak). Esleipenaren zenbatekoa: 85.300'39€ (BEZa kanpo).

Bigarrena.- Esleipenaren eraginkortasuna etenda geldituko da 10 egun naturaleko epean, esleipenaren jakinarazpena igortzen den egunetik hasita.

Hirugarrena.- Kontratua agiri administratiboan formalizatuko da gehienez ere 15 egun naturaleko epean, esleipenaren jakinarazpenetik aurrera.

Laugarrena.- Gogoratzea LAKITA S.A. enpresari baldintza pleguko 17 eta 18. oinarrian ezarritako agiriak aurkeztu beharko dituela kontratua formalizatu aurretik, eta hura sinatzeko ezinbesteko baldintza izanen dela.

Kontratua ez bada epe barruan formalizatzen kontratistari egotz dakizkikeen arrazoiengatik, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua suntsiarazteko, interesdunari entzun ondoren. Horretarako, interesdunak kontratuaren zenbateko zenbat etsiaren % 5eko zigorra eta kalte-galeren kalte-





LARRAUNGO UDALA

ordain osagarria ordaindu beharko ditu, ehuneko hori gainditzen duen guztian, edo beste epe luzaezin bat eman ahal izango du.

Bosgarrena.- Esleipena LAKITA S.A. enpresari jakinaraztea, eta Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzea, Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 102. artikuluan ezarritakoaren arabera."

Ziurtagiria egin dut, betiere, akta onartzerakoan sar litezkeen aldaketen kalterik gabe, hori guztia Toki Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Errege Dekretuko 206. artikulua ezarritakoaren arabera, azaroaren 26ko 2568/1986 zenbakiduna.

Ebazpen honen kontra, errekurso hauetariko bat aurkez daiteke:

1.- BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA, ekintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita edota GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

2.- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinazari eta biharamunetik aurrera.

Mugiron, Larraunen, sinadura elektronikoaren datan.

ALKATEA

Izptua.: Mikel Uharte Martija

IDAZKARIA

